

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### DULANTZIKO UDALA

#### Lizitazioa: posta zerbitzuak

Bat etorri 2016ko abuztuaren 22ko gobernu batzordeak erabakitakoarekin, iragarki honen bidez, deialdia egiten da, prozedura irekiaren bidez esleitzeko posta zerbitzuen kontratua, hainbat irizpide aintzat hartuta, eta betiere ekonomiaren aldetik abantailatsuen den eskaintzaren arabera; hona hemen lizitazioaren datuak:

1. Erakunde esleitzaila: datu orokorrak eta argibideak eskuratzeko datuak:

a) Erakundea: Dulantziko Udala.

b) Dokumentazioa eta argibideak eskuratzeko:

1. Bulegoa: Dulantziko Udala.

2. Helbidea: Herriko plaza, 1.

3. Herria eta posta kodea: 01240 - Dulantzi.

4. Telefonoa: 945-420027.

5. Telefaxa: 945-420394.

6. Posta elektronikoa: aalegria.general@ayto.araba.eus

7. Kontratatzailearen profilaren Interneteko helbidea: [www.alegria-dulantzi.eus](http://www.alegria-dulantzi.eus) eta [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus)

8. Agiriak eta argibideak eskuratzeko azken eguna: eskaintzak aurkezteko epea bukatu baino 3 egun lehenago.

c) Espediente zenbakia: 14/2016

2. Kontratuaren objektua

a) Mota: zerbitzuak.

b) Objektuaren deskribapena: posta zerbitzuak.

c) Gauzatzeko lekua:

1. Helbidea: Herriko plaza, 1.

2. Herria eta posta kodea: 01240 - Dulantzi.

d) Gauzatzeko/entregatzeko epea: 2 urte; beste 2 urtez luzatu ahalko da.

e) Luzapenik onartzen da: bai.

f) CPV: 64110000-0.

3. Izapidetzea eta prozedura

a) Izapidetzea: arrunta.

b) Prozedura: irekia.

c) Esleipen irizpideak: Eskaintzak balioesteko eta ekonomiaren aldetik eskaintzarik abantailatsuen den zehazteko, hainbat esleipen irizpide hartuko dira kontuan.

### 3.1. Automatikoki kuantifikagarri diren irizpideak:

Lizitzaileek posta zerbitzu bakoitzaren unitateko prezioa adierazi beharko dute zeinek bere eskaintza ekonomikoan, BEZa aparte, bai eta pisu tarte, norakoaren eremua eta zerbitzu gehigarriak, eranskinean adierazitako eskaintza ekonomikoaren ereduaren arabera..

Eskaintza ekonomiko guztirakoa izango da zerbitzu mota bakoitzerako eskaintako unitate prezioak urteroko bidalketa kopuruarekin biderkatuta ateratzen diren emaitzen batura.

Eskaintza ekonomiko merkeenari 60 puntu emango zaizkio, eta hurrengoak formula honen arabera kalkulatu dira:

$$\text{Eskaintza ekonomikoaren puntuazioa} = 60 \times \frac{\text{Enpresa lizitzaileen artean eskaintza ekonomiko merkeena, Prezioen batez bestekoa kalkulatu tokiko hiriarteko 1 eta 2rako}}{\text{Enpresa lizitzailearen eskaintza ekonomikoaren zenbatekoa, prezioen batez bestekoa kalkulatu tokiko hiriarteko 1 eta 2rako}}$$

### 3.2. Automatikoki kuantifikatu ezin diren irizpideak::

Enpresa lizitzaileek alderdi hauen guztien gaineko dokumentazioa aurkeztu beharko dute, eta esleipen prozeduratik kanpo uzteko kausa ere izan daiteke alderdi hauetakoren bat ez definitzea:

DESKRIBAPENA	HAZTATZEA	AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA (ORO HAR ADIERAZIRIK)
Zerbitzuaren kalitatea eta antolaketa	15 puntu	Udalak jakinarazitako gorabeherak eta/edo erreklamazioak ikertu, kudeatu eta ebazteko metodologia deskribatzeko dokumentazioa. Gehienez 7 puntuko balorazioa.
		Memoria bat, honako hauei buruzkoa: zerbitzuaren antolaketa, informatika sistemak eta aplikazioak ere tartean direla; kontratuari atxikitzen zaizkion bitartekoak; norberaren posta sareak zenbaterainoko eremua hartzen duen banaketan; Araban, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Estatuan jendeari arreta eskaintzeko bulegoak; posta bidalketak tratatzeko zentroak; bidalketak jasotzeko sistemak eta bitartekoak, eta abar. Gehienez 5 puntuko balorazioa.
		Kontratu kudeatzeko metodologia egiaztatzeko dokumentazioa, honako hauek deskribatuz: bidalketa deskribatuen bolumen estimatuak bildu, onartu, sailkatu, garraiatu eta etxean entregatzeko prozesuak eta bolumen ezohikoak entregatzeko prozesuak, eta orobat posta bidalketen itzulketak, fakturazioa, nahiz entregatze agiriak egiteko eta bidalketei jarraitzeko informatika sistemak; administrazio jakinarazpenak egiteko sistema. Gehienez 3 puntuko balorazioa.
		Kontratuaren objektuarekin zerikusi zuzena duten prozesuetako bakoitzean emandako zerbitzuaren kalitatea egiaztatzeko prozeduren gaineko deskribapen dokumentazioa. Gehienez 3 puntuko balorazioa.
Euskararen erabilera	15 puntu	Zerbitzua emango duten langileek euskara jakitea; dagokion tituluekin egiaztatuko da. Gehienez 8 puntuko balorazioa. Udalari eta herritarrei igortzen zaien dokumentazio guztia ele bitan izatea. Proposatutako ereduak aurkeztuko dira. Gehienez 7 puntuko balorazioa.
Hobekuntzak	10 puntu	Dokumentazio ereduak aurkeztea beste prestazio batzuei buruz, zeinen bidez, Dulantziko Udalarentzat kosturik ez dakartela, berrikuntzak eta hobekuntzak eransten zaizkien zerbitzuei eta hobeto erantzuten zaien posta komunikazioko beharriazane.

### 4. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua

Zenbateko garbia: 28.351,28 euro. Ehuneko 21eko BEZa: 5.953,76 euro. Zenbatekoa, guztira: 34.305,04 euro, lau urteengatik. Esleipena egingo da administrazio klausula berezien pleguan ageri diren unitate prezioen arabera.

## 5. Bermeak

Behin betikoa: ehuneko 5.

## 6. Kontratataren berariazko betekizunak:

6.1. Enpresariaren ekonomia eta finantza kaudimena honako bideetako bat edo batzuk erabiliz egiaztatu ahal izango da:

a) Negozio bolumen osoaren gaineko adierazpena, eta, hala balegokio, kontratuaren objektuari dagozkion jardueren eremuan lortutako negozio bolumenari buruzkoa; gehienez ere eskura diren azken hiru ekitaldietako negozio bolumenari buruzkoak, enpresariaren jarduerak sortu edo hasi ziren data kontuan hartuz, negozio bolumen horiei buruzko datuak eskura diren neurrian.

6.2. Zerbitzu kontratuetan, enpresariaren gaitasun teknikoa honako bide hauetako bat edo batzuk erabiliz egiaztatuko da:

a) Udalean zerbitzu hori emateko bitarteko pertsonal eta materialen deskribapena.

b) Enpresak Arabako Lurralde Historikoan dituen establezimenduen zerrenda.

## 7. Eskaintzak edo parte hartzeko eskaerak aurkeztea:

a) Eskaintzak aurkezteko azken eguna: 15 egun, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

b) Eskaintzak aurkezteko lekua:

1. Bulegoa: Erregistro Orokorra.

2. Helbidea: Herriko plaza, 1.

3. Herria eta posta kodea: 01240 - Dulantzi.

4. Helbide elektronikoa: aalegria.general@ayto.araba.eus

c) Lizitatuzaileak bere eskaintzari eutsi beharko dion epea: 3 hilabete.

## 8. Eskaintzak irekitzea:

a) Helbidea: Herriko plaza, 1.

b) Herria eta posta kodea: 01240 - Dulantzi.

c) Eguna eta ordua: eskaintzak aurkezteko epea bukatu eta hirugarren egun balioduna.

## 9. Publizitate gastuak:

Esleipendunak ordainduko ditu.

Dulantzi, 2016ko abuztuaren 22a

*Alkatea*

*JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA*